



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. Legegintzaldia

Iruñean, 1997ko martxoaren 26a

21 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege Proiektuak:

—Nafarroako 1995eko Kontu Orokorrei buruzko Foru Legea. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).

E SAILA:

Jabeldurak eta Mozioak:

—Mozioa, Nafarroako Parlamentua Elx-eko Dama behin-behinean lagatzeko eskaerari atxiki dakion. Osoko Bilkurak baztertua (4. or.).

—Ebazpena, Nafarroako Gobernua ibai-ekosistemak zaintzeko eta kudeatzeko Foru Lege proiektu bat bidaltzera premiatzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Eperrekin zerikusirik duten hainbat gorabeherari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).

—Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren etorkizuneko Kontratuei buruzko Legea prestatze-mailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).

—Ekonomi eta Ogasun Departamentuaren menpeko den Kanpo Ekintza Zerbitzuaren helburuei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).

—Sociedad de Desarrollo Exterior de Navarra, S.L. delakoan lanean ari diren pertsoneri buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).

—Sociedad de Desarrollo Exterior de Navarra, S.L. delakoaren urteko guztizko kostuari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).

—Iparraldeko Autobian paraturiko laguntzarako telefono-zutonei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).

A Saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Nafarroako 1995eko Kontu Orokorrei buruzko Foru Legea

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 1997ko martxoaren 20an eginiko Osoko Bilkuran, Nafarroako 1995eko Kontu Orokorrei buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikulua ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko martxoaren 21ean.

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguíá

Nafarroako 1995eko Kontu Orokorrei buruzko Foru Legea

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 18. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, Diputazioari dagokio Aurrekontu Orokorren prestatzea eta Kontuak formalizatzea Parlamentuari aurkezteko, horrek eztabaidan jarri, zuzendu eta, behar izanez gero, onespenera eman diezaien, hori guztia foru legeek ezartzen dutenari jarraikiz.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 110. artikulua, Ekonomi eta Ogasun Departamentuaren eskutan uzten du Nafarroako Kontu Orokorren formulazioa, horiek, behin Nafarroako Gobernuak onetsita dituela, Nafarroako Parlamentura igorri beharko direlarik behar duten Foru Lege proiektuaren bidez, 8/1988 Foru Legeko 115. artikuluan aginduta dagoen bezala.

Nafarroako Gobernuak 1995eko ekitaldiko Kontu Orokorrei buruzko izapidaketak betarik dituela, Kontuen Ganbarak derrigorrezko irizpena emana duelarik eta Nafarroako 1995eko Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 151. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera izapidatu delarik, bidezko da Foru Lege horri onspenera ematea.

Artikulu bakarra. Onetsi egiten dira Ekonomi eta Ogasun Departamentuak formulatu eta Nafarroako

Gobernuak onetsitako Nafarroako 1995eko Kontu Orokorren, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 8/1988 Foru Legeko 113., 114. eta 115. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik. Edukia ondoko agirietan agertzen da:

I. Tomoa.- Foru Komunitateko Administrazioaren eta horren erakunde autonomoen Aurrekontuen likidazioa, finantzen egoera-orriak eta Txostena. Hona hemen hori osatzen duten agiriak:

– Nafarroako 1995eko Aurrekontu Orokorren kitapenaren laburpena.

– Gastuen Aurrekontuaren kitapena.

– Dirusarreraren Aurrekontuaren kitapena.

– Finantzen egoera-orriak eta argibide osagarriak:

- Egoeraren Balantze Orokorra.
- Ekitaldiko emaitzen kontua.
- Fondon jatorri eta aplikazioaren egoera-orria.
- Diruzaintzako kontu orokorra.
- Zorpetzearen kontu orokorra.
- Ondasun, eskubide eta betebeharren inbentarioa.
- Kobratu beharreko eskubideak eta ordaindu beharreko betebeharrak, aitzineko ekitaldietatik heldu direnak, nola dauden eta haien bilakaera azaltzen duen egoera-orria.
- Erabilera orokorraren xedea hartu duten jabari publikoko ondasunetan ekitaldiaren barnean eginiko inbertsioak azaltzen dituen egoera-orria.
- Hurrengo ekitaldien kargura hartutako konpromezuen egoera-orria.

– Oroit-idazkia.

II eta III. Tomoak.- Nafarroako Parlamentuaren Kontuak, Kontuen Ganbararenak eta Foru Komunitateko Sozietate Publikoenak.

ERASKINA

– Foru Komunitateko Administrazioaren eta horren erakunde autonomoen Aurrekontuetako kitapenaren xehetasun dokumentuak.

– Foru Komunitateko Administrazioaren eta horren erakunde autonomoen egoera orrien xehetasun dokumentuak.

E Saila:
JABELDURAK ETA MOZIOAK

Mozioa, Nafarroako Parlamentua Elx-eko Dama behin-behinean lagatzeko eskaerari atxiki dakion

OSOKO BILKURAK BAZTERTUA

Biltzarrek, 1997ko martxoaren 20an eginiko Osoko Bilkuran, «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldeak aurkezturiko mozioa, Nafarroako Parlamentua Elx-eko Dama behin-behinean lagatzeko eskaerari atxiki dakion baztertu zuen. Mozio hori 1997ko martxoaren

14ko 18. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Ebazpena, Nafarroako Gobernuia ibai-ekosistemak zaintzeko eta kudeatzeko Foru Lege proiektu bat bidaltzera premiatzen duena

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Biltzarreko Erregelemenduko 112. artikulua ezartzen duena betez, "Nafarroako Gobernuia ibai-ekosistemak zaintzeko eta kudeatzeko Foru Lege proiektu bat bidaltzera premiatzen duen Ebazpena" Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Ebazpen hau 1997ko martxoaren 20an osoko bilkuran onetsi zen.

Iruñean, 1997ko martxoaren 21a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Ebazpena, Nafarroako Gobernuia ibai-ekosistemak zaintzeko eta kudeatzeko Foru Lege proiektu bat bidaltzera premiatzen duena

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen du ibai ekosistemak kontserbatu eta kudeatzeari buruzko Foru Lege proiektua bidaldez.

Foru Lege proiektuak hurrengoak ukituko ditu, ikuspuntu baterabiltzaileekin: Nafarroako ibaiak, ibaiertzak, ibarbasoak eta basa flora eta faunarentzako habitata osatzen duten berezko elementuak zaindu eta kudeatzea, errespetatu beharreko emari ekologikoa, eta baita kontserbazioa interes bereziko den tarte nagusien zerrenda, horietako bakoitzarendako babes erregimen berezia eta guzti.

F Saila:
GALDERAK

Eperrarekin zerikusirik duten hainbat gorabeherari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak eperrarekin zerikusirik duten hainbat gorabeherari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko urtarrilaren 7ko 2 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko otsailaren 5a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguíá

ERANTZUNA

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak, hau izenpetzen duenak, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikiriko Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak, eperrarekin zerikusirik duten hainbat gorabeherari buruz egindako galderari, idatzizko erantzuna eskatu duenari, dagokionez, erantzun hau igortzen dizu:

1.- Nafarroako Gobernuak Ingurugiro Zerbitzua eperrari buruzko azterketak egiten ari da?

2.- Ba al daki Nafarroako Gobernuak Nafarroako hainbat aldetan, lehengo urteetan eperraren hazi-toki nardoak zeinetan (adibidez Galipentzu, Caseda, Uxue, San Martin Unx...) gero eta eper gutxiago dagoela?

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak urtean-urtean datuak biltzen ditu eper ugariasunari buruz eta haien joerari buruz kontrol estandarizatuen bidez. Kontrol horiek 1990az geroztik burutzen ari dira eta, adierazten dutenez, Nafarroako eperrak ugaltzearen 1990etik 1994ra bitarte eta bi urte unetan orokorrean gutxitu egin dira. Dena dela, egoerak, eskuarki, onar daitezkeen mugen barruan dirau. Bilakaerak, besteak beste, urtean urteko ugaltzetarekin du zerikusirik. Hori horrela, 1990etik 1993ra bitarte, ugaltzea ona izan zen eta popula-

zioak modu garrantzitsuan zabaldu ziren. Hurrengo bi urteetan, ugaltzeak huts egin zuen foru herrialdeko alde askotan, eta azkeneko ekinaldian ugaltzeak normalizat jo daitezkeen neurrietan iraun du. Bistan denez, Ehiza Antolatzeako Planik ez balego, elkarren segidako bi urteetan ugaltzearen kiebrak, zalantzarik ez, Nafarroako eperrak desagartzea eraginen zukeen edo, bederen, haien populazioa ehizatze mugen azpitik eramanen. Burutzen ari den ehiza-kudeaketaren arrakasta, hain zuzen ere, ugaltzea txikia denean edo halakorik ez dagoenean neur daitezke ehizaren eragina baliabide eskuragarrietara egokitzeko tresnak.

Bistan denez, Nafarroako ehiza-barruti bakoitzean izaniko kudeaketa Ehiza Elkarleen ahalegin eta interesaren arabera izaten da eta horiek non eta horrelakoxeak izaten dira. Zentzuzkoa da, beraz, objektiboki antzeko egoerak dituzten alderdietan ezberdintasun garrantzitsuak egotea. Horregatik, eper gutxi dauzkaten barrutiak aipa daitezke, baina, haien aldean hegazki horietarik asko dauzkaten alderdien zerranda bat ere egin liteke.

3.- Esan beza Nafarroako Gobernuak zer datu duen eper gutxiago izateko arrazoi hauei buruz:

- Ugaltzaile fala
- Eper antzuak
- Arrano, azeri, pika eta suge ... gehiegi izatea.

Departamentuan daukagun informazioaren arabera, Nafarroako ehiza-barruti batzuetan eper urritasunak badu zerikusirik ugaltzaile faltarekin eta hori, halaber, ehiztari elkarte batzuek ehiza-baliabideak gaizki erabili izanari dago loturik.

Ez da egiaztatu ale bat ere antzua dela. Bestaldetik, kontutan hartzekoa da, harrapariak ehizatzen duten espezieetan duten eragina. Gainera, orokorrean, okerra da hegazti harrapariak - haietarik batzuk desagertzeko zorian daudela - eta orotariko harrapari antropofiloak, hala nola azeria

eta mika, maila berean jartzea. Azkeneko bi espeziak kontrolatu eta jarraitu egin behar dira, haien populazioak sobera ugariak izatea saihesteko. Horrelaxe egiten du Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak. Horrek ehizaldi luzeak baimentzen ditu eta, indarra duen legeriaren arabera, beharrezkoak direnean, kontrolatzeko jarduerak ere bai.

4.- Zer herbizida eta pestizida daude baimenduta nekazariak euren alorretan erabiltzeko, eta zer klasetako dira?

Lehenengo eta behin, esan beharra dago, nekazariak beren landalurretan darabiltzaten herbizida eta pestiziden kudeaketa Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuari dago kiola. Horrek, Instituto Técnico y de Gestión del Cereal (ITGC) delakoarekiko elkarlanean dihardu arlo horri dagokionez.

Bigarrenik, nekazaritzan erabiliak izateko gaitzat hartzen diren ekoizkinak Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioko ekoizkin fitosanitarioren erregistro ofizialean baimenduak daudenak dira. Erregistro horretan erabil daitezkeen ekoizkin

eta landaketa guztiak agertzen dira eta, nekazariak eskaturik, landaketa erabili asmo den bateragarri den egiaztatu egiten da lehenbizi.

Gainera, ITGCa bera saiatzen da, erregistro ofizialean baimenduriko ekoizkinen artetik, beti kategoria toxikologikorik apalenetan sarturik daudenak erabil daitezzen.

Azkenik, esan daiteke azkeneko urteetan Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak eta Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak elkarlanean jardun dutela, nekazariak konturarazteko kutsatzen ez duten ekoizkinak erabili behar dituztela edo, bederen, inguruneari kalte gutxien eragiten dioten horiek. Xede horiek dituzten jarduketak finantzatu izan dira.

Hau jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. eta hurrengo artikuluetan ezarrikoia betetzeko asmoz.

Iruñean, 1997ko urtarrilaren 27a

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren etorkizuneko Kontratuari buruzko Legea prestatze-mailari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren etorkizuneko Kontratuari buruzko Legea prestatze-mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko urtarrilaren 7ko 2 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko otsailaren 6a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak, Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren etorkizuneko Kontratuari buruzko Legeari buruz egindako galderari erantzuteko asmoz, hau dio:

1.- Gaur egun Ekonomi eta Ogasun Departamentua Gobernuari Nafarroako Administrazio Publikoaren Kontratuari buruzko Lege proiektu gisa proposatuko dion testua bukatzen ari da. Gobernuak badu asmoa proiektua horretaz informatu behar duten erakundeetara, hots, Nafarroako Ekonomi eta Gizarte Kontseilura eta Kontratazio Administrazioaren Batzarrera otsailean igortzeko.

2.- Aurreko puntuan aipaturiko biderapenak beterik, behar diren irizpenak kontutan harturik, Gobernuak 1997ko otsailean igorriko du Lege proiektu hori Foru Parlamentura, horrek azter eta eztabaida dezan.

Hau jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. eta hurrengo artikuluetan ezarrikoia betetzeko asmoz.

Iruñean, 1997ko urtarrilaren 27a

Ekonomi eta Ogasun Kontseilaria: José María Aracama Yoldi

Ekonomi eta Ogasun Departamentuaren menpeko den Kanpo Ekintza Zerbitzuaren helburuei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Ekonomi eta Ogasun Departamentuaren menpeko den Kanpo Ekintza Zerbitzuaren helburuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko otsailaren 3ko 7 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko otsailaren 7a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Kanpo Ekintza Zerbitzua Ekonomi Zuzendaritza Nagusian sartzeko egitura organikoaren aldaketei buruz, Nafarroak Brusselan zituen ordezkarien kargu-kentzeari buruz eta Nafarroak Europako hiriburuan duen agertzeari buruz egini duen eta 47 sarrera-erregistroa duen galderari, idatzizko erantzuna eskatu duenari, dagokionez, Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak hau dio:

Hiruko Gobernuaren garaian, Nafarroako Gobernuaren Kanpo Ekintzak hiru erdigune zeuzkan:

- Kanpo Ekintza Zerbitzua, Lehendakaritza Departamentuan kokatua, Lehendakaritzak zenbait forotan (Pirinioetako Lan Komunitatean, Akitania-Euskadi-Nafarroa Protokoloan, Eskualdeen Komitean, Europako Eskualdeen Asanbladan, Europako Mugaldekoko Eskualdeen Asanbladan, Arku Atlantikoan, eta abarretan) zeukan erakunde-partaidetzaren euskarri gisa.

- Europako Batasuneko Eskualdeen Garapenerako Zerbitzua, Ekonomi eta Ogasun Departamentuari atxikia, bi eginkizun zeuzkana: Foru Komunitateak Europako Batasuneko programa eta ekimenetan jarduketak sustatzea eta Departamentuen ekintzak haietan koordinatzea, EBko egiturazko fondoetatik datozen fondoak (FEOGA; FEDER; FSE eta kohesiokoak) hartzeko eta Europako Batasuneko politiken jarraipena egiteko, Gobernuari eta haren Departamentuei jakinarazteko.

- Gobernuaren Bulegoa/Ordezkaritza, hasiera batean bi Zerbitzuei eusteko zena, baita EBaren aurreko ekonomi eta gizarte egileak ere.

Gobernua, onarturiko egitura organiko berriekin, saiatzen ari da Kanpo Ekintza unitate organiko bakarrean bateratzen, lehenagoko bi Zerbitzuak Kanpo Ekintza Zerbitzuan elkarganatu eta Brusselako Ordezkaritza, Zerbitzu horren bidez, Ekonomi eta Ogasun Zerbitzuari lotuz.

Egitura berriak Kanpo Ekintza Zerbitzu bakar batean biltzea dakar, eginkizunei dagokienez Brusselako bulegoari atxikiko zaiona. Kostua txikiagoa izanen da. Izan ere, Zerbitzu eta Atal bana kendu egin dira lehenagoko hiru ekintza erdiguneren arteko ekimenak ez dira hainbeste sakabanatuko. Horrek ez du esan nahi egiten ari ziren jarduketak desagertuko direla, baizik eta dauden baliabideak hobeki koordinatu eta erabiltzea lortu egin nahi dela, baita Brusselako Ordezkaritzaren jarduketak hobeki zehaztea ere, Kanpo Ekintza Zerbitzuarekiko elkarlanean eta horren euskarri.

Gobernuak Brusselan zeukan Ordezkaritzan, lehengoko ordezkariaren kontratua urriaren 6an iraungi zen. Gobernu berriak pentsatu zuen, izendapen libreko kargua zenez, bidezko zela haren ordezkari bat ezarri zuen, uste zenez, egokitasuna, konfidantza eta ulerkuntza berria bereganatzeko gaitasuna bilduko zituen.

Hortaz, ez da lehengo ordezkariaren kontratua luzatu eta otsail hasieran ordeztua izanen da. Ordezkarri berria Beatriz Salvador García andrea izanen da eta, bistan denez, izendapena ez da argitaratu. Izan ere, Ordezkaritzaren kudeaketa ez Foru Komunitateko Administrazioaren organoren baten bidez egiten, baizik eta Ekonomi eta Ogasun Departamentuari atxikirik dagoen SODEXNA sozietate publikoaren bidez.

Egokitze-aldiari dagokionez, 1996ko abenduak 31 arte, Ordezkaritzan, langileek lanean jardun dute haien kontratuak iraungi arte.

1997ra begira, Gobernuaren asmoa beste lantalde bat egituratzea da, gure Komunitatearen harreman, informazio eta agertze jarduerak Brusselan sustatu eta haiei eusteko.

Hau jakinarazten dizut, Nafarroako Foru Parlamentuko Erregelamenduko 184. eta hurrengo kapituluak betetzeko asmoz.

Iruñean, 1997ko otsailaren 5a

Ekonomi eta Ogasun Kontseilaria: José María Aracama Yoldi

Sociedad de Desarrollo Exterior de Navarra, S.L. delakoan lanean ari diren pertsonen buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Sociedad de Desarrollo Exterior de Navarra, S.L. delakoan lanean ari diren pertsonen buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko otsailaren 3ko 7 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko otsailaren 7a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentariak Nafarroako Gobernuak Bruselan duen bulegoaren zenbait gorabeherari buruz, hala nola, bertan lanean ari diren pertsonen buruz, 1997an haren mantenimendurako aurrekontuetan agertzen diren diru-kopuruei buruz, eginkizun eta langileetan izan litezkeen aldaketei buruz, SODEXNArekiko hitzarmenari buruz eta Europako Komunitateetarako Estatuko Idazkaritza Nagusiarekiko harremanen buruz egin duen eta 46 sarreraregistroa duen galderari, idatzizko erantzuna eskatu duenari, dagokionez, Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak hau dio:

Bruselako Bulegoan lau pertsona ari ziren lanean: ordezkaria eta hiru langile. Abenduaren 31n ordezkariaren eta bi langileren kontratuak iraungiak ziren. Hori dela eta, 1997ko urtarrilaren 15ean, langile bat baizik ez zen lanean ari eta haren kontratua apirillean iraungiko da.

Ordezkeri berriak, Kanpo Ekintzaren Zerbitzuarekin ados jarriarik, lanari ekiten dionean, otsail hasieran, zehaztuko du Bulegoan lanean arituko den lantaldea. Zehazte horren abiapuntua gastu publikoa ez gehitzea izan da, funtzionamenduaren eraginkortasuna baizik, gehienbat Kanpo Ekintzaren Zerbitzuekin hobeki koordinaturik, bai plangintzan, bai lanak burutzerakoan.

Hortaz, bulegoko alokairu-gastuak bazterrean utzirik, haren zenbatekoa beste galdera baten erantzunean zehaztu baita, kontratuan ezarri bezala eguneratuko dena, bulegoko gastuek 40 milioi egiten zuten, SODEXNArekiko Hitzarmena izeneko 11600-4400-1341 kontusailean agertzen direnak. Ekonomi eta Ogasun Departamentuak

urtean-urtean izenpetzen du hitzarmen hori sozietate horrekin.

Europako Batasuneko politiketan gehien esku sartzen duten Zuzendaritza Nagusiekin harremanak izanik lortu da Bulegoak garatuko dituen eginkizunak zehaztea. Hauexek dira, besteak beste:

1. Batzordearen agiri ofizialetan argitaratzen ez den informazioa hartu eta igortzea, haren bidez zuzenean lorturik edo Espainiak Bruselan duen Ordezkaritza Iraunkorren bidez.

2. Nafarroak parte hartzen dueneko erakundeak, hala nola, Eskualdeen Komiteari edo Aholkularitza edo Kudeaketa Komiteei eustea edo, hala bada, bertan zuzenean parte hartzea.

3. Batzordeko Zuzendaritza Nagusietan aztertzen diren eta Nafarroarendako "eraginkor" izan daitezkeen denetariko aferen jarraipena egitea. Adibidez: enpresendako laguntzena, Nafarroako Ubidearekin zerikusirik duten gorabeherena, zerga gaiena, eta abarrena.

4. Nafarroak Europako Batasuneko prestakuntza lortzeko aurkezturiko espediente eta planen biderapenaren jarraipena egitea eta hari eustea. Adibidez, gaur egun, aipatzekoak dira: Kohesio Fondoan finantzaketa eskatzen deneko proiektuak; 2 xedeko programa operatiboaren onespeneraren biderapena; Interreg II c ekimenarena.

Espainiaren Ordezkaritza Iraunkorrekiko harremanak, baita interesgarritzat jotzen diren bestelako erakundeekikoak ere: ICEX, Merkataritza Ganbara, beste herrialde batzuetako bulegoekikoak, hain zuzen ere, partzuergoak osatzearen, etab.

5. Agintari eta funtzionarioen mintegiak, mintzaldi eta bilerak antolatzea, baita Nafarroako ekonomi eta gizarte egileen ordezkarien Europako Batasuneko funtzionarioekikoak ere, Departamentuarendako edo ekonomi eta gizarte egileendako interesgarriak diren gaien buruz.

6. Agintariei harrera egitea eta laguntza ematea, haiek Brusela doazenean, bertan daudenean edo gestioak egiten ari direnean.

7. Bulegoan lanean jardun lezaketeko bekadunen prestakuntza ematea Europako Batasuneko gaien buruz.

Eginkizun horiek direla abiapuntu, hasiera batean ez dago asmorik lehenagotik dauden langileak gehitzeko.

Bulegoaren berezko eginkizunen artean, Bruselako beste erakunde batzuekin harremanak izatea dago, bereziki Espainiak Europako Batasunerako duen Ordezkaritza Iraunkorarekin, gehienbat, Kanpo Arazoetarako Ministerioaren eta Herraldeen Administrazioetarako Ministerioaren ordezkariek eta kasuan kasuko Autonomi Erkidegoan Europako Batasuneko aferetan eskudun diren Kontseilariak osatzen duten Europako Batasuneko Arazoetarako Konferentziak proposaturik,

eta irailaren 20ko 2015/1996 Errege Dekretuaren bidez, aipaturiko bi Ministerioek batera proposaturik, Espainiak EBrako duen Ordezkaritza Iraunkorrean Ekonomi Arazoetarako Kontseilaritza sortu zelarik. Bulegoak lankidetzaharreman arinak ditu harekin.

Hau jakinarazten dizut, Nafarroako Foru Parlamentuko Erregelamenduko 184. eta hurrengo artikulua betetzeko asmoz.

Iruñean, 1997ko otsailaren 5a

Ekonomi eta Ogasun Kontseilaria: José María Aracama Yoldi

Sociedad de Desarrollo Exterior de Navarra, S.L. delakoaren urteko gutzizko kostuari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Sociedad de Desarrollo Exterior de Navarra, S.L. delakoaren urteko gutzizko kostuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko otsailaren 3ko 7 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko otsailaren 7a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Nafarroak Bruselan duen Ordezkaritzak osatu zenetik izan duen kostuari buruz, haren eginkizunei buruz bertako langileen lansariei buruz eta SODEXNArekiko hitzarmenari buruz egin duen eta 45 sarrera-erregistroa duen galderari, idatzizko erantzuna eskatu duenari, dagokionez, Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak hau dio:

Bruselako Bulegoaren kostuak bi azalpen ditu nagusiki, egoitzaren alokairua eta Foru Komunitateko Administrazioak SODENA eta SODEXNArekin, hurrenez hurren, izenpeturiko hitzarmenen barruko ekipamendu eta funtzionamendu gastuak.

Bulegoaren alokairu-gastuei dagokienez, 1995ean, hilean, 160.000 franko belgiar egin zuten eta 1996an, 162.354 franko belgiar hilean.

Ekipamendu eta funtzionamendu gastuei dagokienez, 1995ean, 1995eko otsailaren izenpeturiko Hitzarmenaren arabera, 10.337.659 pezeta odaindu zitzaizkion SODENARI eta 20.610.385 pezeta SODEXNARI, 1995eko urrian izenpeturiko Hitzarmenaren arabera. Gutzira, 1995ean, 30.948.044 pezeta egin zuten.

1996an, funtzionamendu gastuek, langileen gastuek barne, ekipamendu gastuak kontutan hartu gabe, 40.000.000 pezeta egin zuten, zego-kion Hitzarmenaren arabera, SODEXNARI ordaindu zitzaizkionak.

Aipaturiko gastuak, alokairuei dagokienez, Europako Batasunean parte hartzeko kanpoko laguntza eta EEEko Bulegoa (Brussela) izeneko 01700-2279-1341 kontusailaren kargura finantzatu ziren 1995ean eta Bruselako bulegoaren alokairua (EB) izeneko 10200-2020-1341 kontusailaren kargu 1996an.

Funtzionamendu eta ekipamendu gastuei dagokienez, 1995ean Europako Batasunean parte hartzeko kanpoko laguntza eta EEEko Bulegoa izeneko 01700-2279-1341 kontusailaren kargura finantzatu ziren 1995ean eta SODEXNArekiko Hitzarmena izeneko 10200-4400-1341 kontusailaren kargu 1996an.

Bulegoari atxikiriko langileen lansariein kostuari dagokionez, 1996an hauxe izan zen:

Ordezkarria: Ordainketa	12.750.000 pzta.
Etxebizitzaren alokairua.....	1.800.000 pzta.
Gainerako langileen ordainketa (hiru pertsona)	11.450.000 pzta.
Langileen ordainketak guztira	26.000.000 pzta.

Langileak, ordezkaria ezik, teknikari gisa kontratatu dira. Haien lansariekin hiru kontzeptu biltzen dituzte: hileroko lansari gordina, 107.143 pezeta egiten duena (14 ordainketa); osagarri bat, Bruselan bizimodua garestiagoa delako, hileroko 150.000 pezeta egiten duena; eta 80.000 pezeta Bruselatik Espainiara joan-etorrian urtean bitan bidaiatzeagatik ordainez. Indarra duten legeekin eta arloko nazioarteko hitzarmenekin bat afiliatu dira Gizarte Segurantzari. Horiek aplikatzekoak ziren, Bruselan lan egiten zutelako eta SODEXNArekin izenpetuak zeuzkatelako beren kontratuak, Foru Administrazioiko Administrazioarekin loturarik ez zegoelarik.

SODEXNAk aurkeztu dituen eta Kanpo Ekin-tza Zerbitzuan dauden agiriaren arabera, Ordezkaritzan lanean ari ziren hiru pertsonetarik bakoitzak bere erantzukizuneko alorra zuen. Nor Europako Batasuneko politiken arlo banataz arduratzen zen,

haren prestakuntzaren arabera. Haietariko bik teknikari gisa ziharduten eta hirugarrena informazioaz eta logistikaz arduratzen zen gehienbat.

SODEXNA elkarte mugatu gisa osatu zen eta ez sozietate anonimo gisa, seguruena osatu aitzin ordaindu beharrekoa gutxitzeko asmoz. SODEXNAk Ekonomi eta Ogasun Departamentuarekin izenpetu izan dituen Hitzarmenen iraupenari dagokionez, urtebetekoa izaten zen.

Bulegoaren funtzionamendu orokorra laburki eta xehetasunik gabe baloratzerakoan, Gobernuak beharrezkotzat jotzen duela kontutan harturik, orain arte izaniko funtzionamenduari asko hobetzen ahal dela irizten zaio.

Nafarroako bestelako erakunde, elkargo eta administrazioek antzeko bulegorik abian jarri ote duten ez dakigu. Dena dela, beste autonomi erkidego batzuek bulegoak ezarri dituzte eta haiekin aldi-aldi harremanak daude, interes amankomuneko gaitan.

Hau jakinarazten dizut, Nafarroako Foru Parlamentuko 184. eta hurrengo artikulua betetzeko asmoz.

Iruñean, 1997ko otsailaren 5a

Ekonomi eta Ogasun Kontseilaria: José María Aracama Yoldi

Iparraldeko Autobian paraturiko laguntzarako telefono-zutonei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Iparraldeko Autobian paraturiko laguntzarako telefono-zutonei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko otsailaren 3ko 7 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko otsailaren 7a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariak, "Socialistas del Parlamento de Navarra"

Parlamentari Taldeko kidea den José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Iparraldeko Autobian (Iruztun-Andoain) paraturiko laguntzarako telefono-zutonei buruz egindako galdera dela eta, ondoren datorren erantzuna jakinarazi nahi du:

1. Zer irizpideren edo zer legeriaren arabera paratu ziren telefono-zutonei horiek Iparraldeko Autobian?

Proiektuan, Iparraldeko Autobian honako fase eta tarte hauek banatu ziren:

– I. Fasea

1 Tarte: Mugiroko Benta-Pagalletako Tunelaren bukaera

2. Tarte: Pagalletako Tunelaren bukaera-Gipuzkoa

– II. Fasea

Irurtzungo saihesbidea

– III. Fasea

1. Tarte: Irurtzun-Latasa

2. Tarte: Latasa-Mugiroko Bentak

– Mugako zubia

S.O.S sistema batek, funtzionatzeko, honako hauek behar ditu:

- 1.- Kanalizazioak eta azpiegiturak
- 2.- Kablea paratzea
- 3.- S.O.S zutoinak
- 4.- Kontrol-zentroa
- 5.- Ustiapen-sistema

Lehen aipatu ditugun tarteetako eraikuntza-proiektuek, dauzkaten agiri guztietan (oroit-idazkia, baldintzen orriak, salneurrien koadroak, neurketak eta aurrekontuak) “Kanalizazioak eta azpiegiturak” atalari dagozkion unitateak baizik ez dituzte biltzen, eta horren barruan honako hauek sartzen dira:

- Zanga irekitzea
- Hodiak paratzea
- Zanga ixtea
- Kutxetak eraikitzea
- S.O.S zutoinak paratzeko oinarriak eraikitzea.

Izan diren aldaketetan eta baita obren kitapean ere, ez da goian aipaturiko elementuetarik besterik sartu, salbu eta Nafarroako Gobernuaren eta Telefonikaren artean izenpetu den Lankidetzaren Hitzarmenaren ondorioz sartu dena (9. atalean esaten denez). Sartu den elementua hauxe izan da: proiektuek hasieran ezartzen zituzten hodiak gehitzea, telefonikak baizik erabiliko ez dituen “hiruhodiak” paratuz.

Beraz, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egin duen galderaren erantzuna, honako hauxe da:

- Ez zen S.O.S. zutoinik paratu.

2. Telefono-zutoinak Iparraldeko Autobia burutzeko hasierako proiektuan sarturik zeuden? Eta proiektu aldatuetan? Labur bildurik, zer agiriren arabera paratu ziren zutoin horiek?

S.O.S. zutoinik ez zegoen hasierako proiektuan sarturik, ez eta aldatuetan ere. Ez zen paratu.

3. Aurreko puntuan aipatzen den agirian, haien eraginkortasuna aipatzen zen? Alegia, adierazten zen zutoinak osorik paratuko zirela?

Aurreko puntuan erantzun denaren ondorioz, esan behar da ezen, S.O.S. zutoinik ez zenez hasierako proiektuan eta ez aldatuetan ere, euren eraginkortasunari buruzko aipamenik ez zen.

4. Adierazten zituen baldintza orriak, behar den kapituluan, paratu beharreko materialek (telefono-zutoinek) bete behar dituzten baldintzak? Eta zer baldintzatan paratu behar diren zutoinak? Eskatzen da bi galdera horiei dagozkien baldintza orriko atalak, laguntzarako telefono-zutoinei buruzkoak, ekar daitezela.

Lehen bi galderari eman dizkiegun erantzunen ondorioz, esan behar da Baldintza Orriak ez zituela materialek eta zutoinen paratzeak bete behar zituzten baldintzak.

5. Behin-behinean eta behin betikoz onartu aitzin, zer saio eta proba egin asmo ziren? Zutoin horiei dagozkien materialek gainditu behar dituzten probei buruzko artikulua ekar daitezela eskatzen da.

Bistan denez, zutoinak hasierako proiektuan sarturik ez zeudenez, eta aldatuetan ere sarturik ez zeudenez, ez zen aurreikusten inolako probarik edo saiorik egiterik.

6. Zenbat diru egiten zuen telefono-zutoinak osorik paratzeko aurrekontuak, hasierako proiektuan, ondorengo aldaketetan eta paratu beharreko obretako behin-behineko eta behin betiko likidazioetan?

Ez dago aurrekonturik.

7. Zenbat ordaindu zaio enpresari laguntzarako telefono-zutoinak paratzeagatik?

Ez da inongo kopururik horregatik ordaindu.

8. Nola daude egiatan telefono-zutoinen instalazioa? Elkarri loturik daude? Osorik abian jartzeko behar diren loturak azkar burutzeko behar den azpiegitura badaukate? Zein da zutoinen eta instalazio osoa osatzen duten materialen egoera?

Lehen adierazpenean esan denez, kanalizazioa baizik ez da egin; hortaz, honako hauek egiteke daude: kablea paratzea, S.O.S. zutoinak paratzea, kontrol-zentroarekin lotzea eta ustiapen-sistema ezartzea.

Hau da, azpiegitura eginda dago.

S.O.S. zutoinen eta instalazioa osatzen duten materialen egoeraz ezin daiteke ezer esan, erosi ere ez dira egin eta.

9. Epe laburrean, zer egin asmo du Nafarroako Gobernuak erabilgarriak izan daitezzen Iparraldeko Autobiako trafikoko bide-segurtasun handiagoa bermatzeko behar diren elementu guztien koordinazioan?

1994ko abenduaren 28an Nafarroako Gobernuaren eta Telefonica de Españaren arteko Lankidetza Hitzarmena izenpetu zen komunikazio-sistemak eraiki eta erabiltzeko asmoz Iparraldeko Autobian eta Sakanako Autobian (1. Eraskinak Hitzarmenaren kopia bat biltzen du).

Hitzarmen horrekin honako hau ezartzen zen, besteak beste:

1.- Nafarroako Gobernuak sartuko zuen, azpiegitura-obren barruan, "hiruhodi" bat, telefonikak baizik erabiliko ez duena.

Honen trukean, telefonikak 38.973.434 pezeta ordainduko zizkion Nafarroako Gobernuari Iparraldeko Autobiarengatik, eta 41.408.961 pezeta Sakanako Autobiarengatik.

Hau bi aldeek bete dute.

2.- Telefonikak bi Autobietako kableak paratzea egingo zuen (zutoin eta kontrol-zentroaren lortura-kableak paratzea), eta Nafarroako Gobernuak ordainduko zion telefonikari Sakanako Autobiako kablea paratzeak balio duenaren %50, 10.252.000 pezeta, egiten zen zenbatespenaren arabera.

3.- Hitzarmenak ez du ezer esaten S.O.S. zutoinei buruz, beraz ulertu behar da zutoinak erostea eta paratzea Nafarroako Gobernuari dagokiola.

Orria eta Aurrekontua prestatu da (2. Eraskina), eta aurrekontuak 15.000.000 pezeta egiten du.

4.- Hitzarmenaren indarraldiaren barruan (15 urte), kableen jabea telefonika izango da, bai zaindu eta mantentzeko ere. Indarraldian zehar, Nafarroako Gobernuak ordainduko dio telefonikari 1.314.539 pezeta/urteko Iparreko Autobiaren tarifa moduan, eta 1.368.580 pezeta/urteko Sakanako Autobiarengatik (48.189 pezeta/urteko/kilometroko).

10. Laguntzarako telefono-zutoinek bere egin-kizuna betetzeko behar den inbertsioa zenbatetsirik dago? Zenbatekoa da? 1997rako Nafarroako

Aurrekontu Orokorretan zer kontusailetan dago izendaturik kopuru hori?

Aurrekoa ikusi eta gero, S.O.S sistema paratzeko egin behar diren operazioek ondoren datorena egingo lukete:

Kablea paratzea	11.000.000.- pzta.
S.O.S. zutoinak	15.000.000.- pzta.
Guztira	26.000.000.- pzta.

eta horrei gehitu beharko litzaizkioke goian aipatu diren urteko tarifak.

Haatik, S.O.S. zutoin hauen sarea zer kontrol-zentroekin lotuko zen zehazteke geldituko litzateke, eta horrek zenbat joko lukeen aukeratzen den irtenbidearen arabera da.

Honako hauek izan litezke irtenbideak, besteak beste:

- AUDENASArekin lotzea
- S.O.S. Navarrarekin lotzea
- Irurtzungo Zaintze Zentroarekin lotzea (kontrata bidezko zainketa)
- Belate eta Almandozko tuneletako kontrol zentroarekin lotzea (laster eraikitzekoa)

Era berean, kontrol zentroan deia jasotzen denetik aurrera zerbitzurako sistema zein izango litzatekeen (garabi-ibilgailua, anbulantzia, suhiltzaileak, eta abar) zehaztu gabe dago.

11. Noiz jar daitezke abian, ahalik eta lasterren, paraturik dauden laguntzarako telefono-zutoinak?

Sistema guztia (instalazioak, loturak, eta abar) abian jartzeko denbora beharrezkoa 8 hilabete izan liteke, sistema lotuko den kontrol zentroa eta erabili beharreko protokoloa zein den erabakitzen denetik kontaktzen hasita.

Eta hau guztia jakinarazi nahi dizut Parlamentuko Erregelamenduko 184. eta ondorengo artikuluek ezarritakoa betez.

Iruñean, 1997ko otsailaren 4a

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti

(Aipatzen diren eraskinak Foru Parlamentari jauna/andreen esku daude Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan)